

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ZEHARKAKO ZERGEN ZERBITZUA

Bigarren Diputatu Nagusiorde eta Ogasun Finantza eta Aurrekontu, Saileko foru diputatua, 545/2025 Foru Agindua, urriaren 13koa. Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziek zergapetzen dituzten produktuen kontabilitatea eraman beharra betetzea arautzen duen urtamilaren 27ko 30/20 Foru Agindua aldatzea

Urtarrilaren 27ko 30/20 Foru Aginduaren bidez Fabrikazioaren gaineko Zerga bereziek kargatzen dituzten produktuen kontabilitatea arteztu beharra arautu zen.

Betebehar formalak eta kontabilitateko betebeharrak direla eta, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduaren 50. artikulua, irailaren 28ko 1512/2018 Errege Dekretuaren laugarren artikulua aldatzen duenak, xedatzen du Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien araudiak eragiten dien establezimenduek zerga horien kargapeko produktuen kontabilitatea arteztu beharko dutela, eta, behar denean, haiek eskuratzeko behar diren lehengaien kontabilitatea ere bai.

Kontabilitatea arteztu beharra kontabilitateko liburuekin bete behar da, organo eskudunak aginduta ezartzen diren epealdien eta edukiaren arabera.

Artikulu horretan xedatzen denaren arabera, fabriken, gordailu fiskalen, jasotze gordailuen, biltegi fiskalen eta ozpin fabriken kasuan zerga berezien kontabilitatea arteztu beharra betetzeko euskarri informatikodun kontabilitate sistema bat erabiliko da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez: kontabilitateko idazpenak egoitza horretan emango dira baliabide elektronikoaren bitartez.

Aurrekoa betetzeko, urtarrilaren 27ko 30/20 Foru Aginduak, Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien kargapeko produktuen kontabilitatea arteztu beharra arautzen duenak, Zerga Berezien Erregelamenduaren 50. artikuluan xedatzen dena garatu zuen, eta honako hauek ezarri zituen: Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien inguruko kontabilitateko betebeharra betetzeko erabili beharreko kontabilitate liburuak, haietan egin beharreko idazpenak noiz egin eta idazpen horietan zer adierazi, Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez artezteko aplikatu beharreko arauak eta zehaztapen teknikoak, eta nola bete behar diren kontabilitateko betebeharrak 2020ko urtarrilaren 1az geroztik.

Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien kargapeko produktuen kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez arteztu beharra orokortu denez gero, sistema horren alderdi batzuk aldatu behar dira, lortu behar baita sistemaren oinarria kontabilitate ekitaldien arabeko kontabilitatea izatea eta kontabilitate idazpenen hornidura lotuta egotea mugimendua, eragiketa edo prozesua gertatzen den kontabilitate ekitaldiarekin.

Horretarako, kontabilitate ekitaldia egutegiko urtea izango da, eta kontabilitate ekitaldi bakoitzaren irekiera eta itxiera Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez jakinaraziko dira, eta itxiera jakinarazi gabe dagoen kontabilitate ekitaldietako idazpenak ere halaxe bidaliko dira.

Beste alde batetik, Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien kargapeko produktuen kontabilitatean zehatz-mehatz agertu behar da zenbat produktu eta lehengai dauden establezimenduan; funtsezkoa da kontabilitateko idazpenetan adierazten diren izakinen informazioa uniforme eta zehatza izatea, bai kontabilitatea arteztu behar duten kargapekoentzat, bai zerga

administrazioarentzat. Horretarako, ezinbestekoa da kontabilitateko idazpenetan zehazten diren produktuak ondo identifikatzea ezarritako idazpen eremuen bitartez; gainera, produktu bat behar bezala identifikatu ondoren, hari buruzko kontabilitateko idazpen guztietan identifikazio eremu berak erabili behar dira.

Horregatik, foru agindu honetan produktu horiek kontabilitatean zuzen eta zehaztasunarekin identifikatzeko erabili behar diren idazpen eremuak ezartzen dira, eta produktuak identifikatzeko aplikatu beharreko oinarritzko irizpideak ere bai. Horren guztiaren helburua da izakinei buruzko informazio oso, uniforme eta erabilgarria lortu ahal izatea.

Ardoaren eta edari hartzituen eta tarteko produktuen ekoizle txikiei beren kontabilitateko betebeharrak betetzen lagundu nahian, xedapen gehigarri berria sartzen da; horren arabera, edari alkoholduak egiteko baimena daukaten Establezimenduek Ardoaren eta Edari Hartzituen gaineko Zergaren eta tarteko produktuen gaineko zergaren eremu objektiboko produktuak baino ekoizten ez badituzte, bulego kudeatzaileak baimena eman ahal izango die beren kontabilitateko idazpenak ardoaren eta edari hartzituen eta tarteko produktuen ekoizleentzat ezarritako epealdi luzatuen barruan bidaltzeko.

Halaber, ozpin fabrika gisa baimendutako establezimenduei beren kontabilitateko betebeharrak betetzen laguntzeko asmoarekin, eta kontuan edukita ospina, Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien kargapeko produktua ez izan arren, zerga horien kargapeko lehengaiak erabiliz sortzen dela, xedapen gehigarri berri baten bidez ospina egiteko lanei dagozkien kontabilitate idazpenak bidaltzeko prozedura errazten da.

Beste alde batetik, urtarrilaren 27ko 30/20 Foru Aginduen eranskina aldatzen da: kontabilitate ekitaldiaren irekiera eta amaiera nola jakinarazi behar diren zehazten da, zenbait hobekuntza sartzen dira kontabilitate idazpenetan, eta sistema eta epealdi berriak ezartzen dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez emandako kontabilitate idazpenak deuseztatzeko.

Azkenik, eranskin berrian zehazten da zer informazio emango dien Arabako Foru Aldundiak establezimenduen titularrei haiek bidaltzeko kontabilitate idazpenen arabeko kontabilitate izakinei buruz, produktu eta lehengai bakoitza zehatuta eta foru aginduan ezartzen diren irizpideen eta eremuen bidez identifikatuta.

Horregatik, dauzkadan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziek zergapetzen dituzten produktuen kontabilitatea eraman beharra betetzea arautzen duen urtarrilaren 27ko 30/20 Foru Agindua aldatzea.

Honako aldaketa hauek egiten dira 30/20 Foru Aginduan (30/20 Foru Agindua, urtarrilaren 27koa, Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziek zergapetzen dituzten produktuen kontabilitatea eraman beharra betetzea arautzen duena):

Bat. 1. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

«1. artikulua. Helburua

1. Foru agindu honen helburua da Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien kargapeko produktuen eta, behar denean, horiek egiteko behar diren lehengaien kontabilitatea artzetzeko baldintzak, epealdiak eta prozedurak arautzea.

2. Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien kargapeko produktuen kontabilitatean zehatz-mehatz agertu behar da holako zenbat produktu (edo, behar denean, horiek egiteko zenbat lehengai) dauden establezimenduan une bakoitzean, hau da, horrelako bakoitzeko zenbat jaso, bidali, erabili, autokontsumitu, egin, ekoitzi eta bildu den. Aurrekoa gorabehera, kontabilitate idazpenak foru agindu honen 5. eta 6. artikuluetan ezartzen diren epealdietan bidali eta erregistratu beharko dira, eta kontabilitatearen erregularizazioa egin behar bada, Zerga Berezien Erregelamenduaren 51. artikuluan 1. apartatuan ezartzen denarekin bat etorri egin beharko da.»

Bi. 3. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

«3. artikulua. Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien kargapeko produktuen kontabilitatearen helburua

1. 2. artikuluan adierazten diren establezimenduen titularrek Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien kargapeko produktuen kontabilitatea arteztu beharko dute (eta, behar denean, haiek eskuratzeko behar diren lehengaien kontabilitatea ere bai) Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez: kontabilitateko idazpenak baliabide elektronikoen bidez emango dira, foru agindu honetan ezartzen diren epealdien barruan eta bertan arautzen den prozedurari jarraikiz.

2. Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien kargapeko produktuen kontabilitatean zehatz-mehatz agertu behar dira holako produktuen (eta, behar denean, horiek egiteko lehengaien) izakinak, prozesuak eta mugimenduak, bai eta horiek biltegitratzean, fabrikatzean edo zirkulatzean agerian jartzen diren diferentziak ere.

Garagardoaren gaineko Zerga dela eta, ekoizpen prozesuan gehitzen diren lehengai batzuen mugimenduak eta izakinak ez dira agertu beharko kontabilitatean, hain zuzen ere Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien kargapean egon ez eta aterakin edukirik ez duten lehengaienak.

Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zerga dela eta, edari deribatuen fabrikaziorako eragiketen kontabilitateko idazpenetan ez dira adierazi beharko alkoholik ez duten lehengaien mugimenduak eta izakinak, baldin eta fabrikatzen den edariaren alkohol graduazioa gehitzen ez badute.

3. Foru agindu honen eranskinetako ondoko apartatuetan zehazten diren eremu informatikoak erabiliko dira produktuak eta lehengaiak kontabilitatean identifikatzeko:

9.1. Zerga epigrafea.

9.2. Epigrafearen kodea.

9.3. NC kodea.

9.4. Gakoa.

9.7. Azalpena.

9.8. Erreferentzia.

Nolanahi ere, identifikazio jakina (aurreko paragrafoko eremu informatikoen arabera) duten produktu eta lehengai guztiak banakatuta agertu behar dira kontabilitatean.

Horrenbestez, honako irizpide hauek aplikatuko dira aurreko eremu informatikoen arabera identifikatutako produktuak eta lehengaiak kontabilitatean banakatuta agertzeko:

a) Eraldaketa mailaren arabera: lehengaiak, prozesatzen edo aribidean dauden produktuak, amaitutako produktuak edo produktu landuak, eta, egonez gero, emaitzako azpiproduktuak edo hondakinak, Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien eremu objektiboan egonez gero.

b) Ontziaren arabera, Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien kargapeko produktuak izanez gero eta erregelamenduz ezarritako galera portzentajea aplikatu ahal bazaie.

Aurreko a) eta b) apartatuetan xedatzen denez, kontabilitatean produktuak eta lehengaiak bereizi behar dira, eta horretarako foru agindu honen eranskinaren II. apartatuko eremu informatiko hauek erabiliko dira: 9.7 Azalpena eta 9.8 Erreferentzia.

4. Kontabilitatean lurraldeko erregistroan inskribatutako biltegi osagarrietan gertatzen diren produktu mugimenduak agertu behar dira, uztailearen 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduaren 65. eta 70. artikuluetan xedatzen denarekin bat etorriz.»

Hiru. 4. artikulua 2. apartatuaren f) eta g) letrak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

«f) Edari alkoholdunak txikizkako salmenten ondorioz irteteko mugimenduak, zerga karga sortzen bada eta salbuespenik aplikatzen ez bada, egunero eman ahalko dira, idazpen bakar batean agregatuta, produktu bakoitzeko banakatuta.

g) Edari alkoholuen eta tabako laboreen gordailu fiskal gisa portuetan eta aireportuetan baimendutako establezimenduek egiten dituzten salmenten ondorioz irteteko mugimenduak, establezimenduok txikizka baino ez badihardute, egunero eman ahalko dira, idazpen bakar batean agregatuta, produktu bakoitzeko banakatuta.»

Lau. 4 bis artikulua gehitzen da; hona testua:

«4 bis artikulua. Kontabilitate ekitaldiaren irekiera eta amaiera

1. Kontabilitate ekitaldia egutegiko urtea izango da. Jarduerari egutegiko urtea hasita da-goela ekiten bazaio, establezimenduari bulego kudeatzailearen lurralde erregistroan alta ematen zaionean hasiko da kontabilitate ekitaldia. Jarduerari egutegiko urtea amaitu aurretik uzten bazaio, establezimenduari bulego kudeatzailearen lurralde erregistroan baja ematen zaionean amaituko da kontabilitate ekitaldia.

2. Kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez artezten duten establezimenduen titularrek egoitza horren bidez jakinarazi beharko dute kontabilitate ekitaldi bakoitzaren irekiera, ekitaldiko kontabilitateko idazpenak bidali baino lehen.

Kontabilitate ekitaldiaren irekiera jakinarazi ondoren irekiera idazpen bat bidaliko da; horren bidez kontabilitate ekitaldiaren hasieran establezimenduan dauden izakinen berri emango da. Jasotze gordailuen kontabilitatea arteztean ez da bidali behar irekiera idazpenik.

3. Kontabilitate ekitaldia amaitutakoan, kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez artezten duten establezimenduen titularrek egoitza horren bidez jakinarazi beharko dute kontabilitate ekitaldi bakoitzaren itxiera.

Kontabilitate ekitaldiaren itxiera jakinarazteko epealdia egongo da: bi hilabete itxitako ekitaldiko azken hilean egindako mugimendu, eragiketa edo prozesuen kontabilitate idazpenak bidaltzeko epealdiko azken hila amaitzen denetik.

Epealdi horren barruan establezimenduaren titularrak ez badu jakinarazten kontabilitate ekitaldiaren itxiera, zerga administrazioak ofizioz itxiko du.»

Bost. 5. artikulua 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

«1. Mugimendua, eragiketa edo prozesua gertatu eta hurrengo hogeita lau ordu baliodu-netan bidali behar da haren kontabilitate idazpena Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektro-nikoaren bidez. Nolanahi ere, irekiera idazpena (foru agindu honen 4 bis artikulua bigarren paragrafoan aipatzen dena) kontabilitate ekitaldiko lehen hilean bidali behar da.

2. Kontabilitatearen ondorioetarako, hemen adierazitako eragiketak eta mugimenduak une hauetan egintzat jo ahalko dira:

a) Hodi finkoetatik doazen produktuak jasotzaile berari bidaltzea, bidalketa amaitzen den unean.

b) Oliobide sareek osatutako gordailu fiskaletan hodi finkoetatik egindako produktuen bidalketak, bidalketa bulego kudeatzailearen baimenean ezarritakoaren arabera amaitzen den unean.

c) Itsasontziak hodi finkoen bidez kargatu eta deskargatzeko eragiketak, amaitzen diren unean, hau da, eragiketaren kantitatea zehazten den unean.

d) Produktuak establezimenduan sartu eta irteteko mugimenduak, errepidez egiten direnak, gertatzen diren unean.

e) Alkohola gordailu zigilatuko araubidean fabrikatzeko eragiketak, zigilua kentzen denean, Zerga Berezien Erregelamenduaren 81. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik.

f) Kontabilitate idazpen bakar batean agregatuta bidaltzen direnean zenbat eragiketa eta mugimendu (foru agindu honen 4. artikulua 2. apartatua), agregazio aldiko azken egunean.»

Sei. 6. artikulua 3. apartatuari paragrafo bat gehitzen zaio, hirugarrena; hona testua:

«Barruko kontabilitate sistemako idazpenetako datuek aukera eman behar dute egiaztatzeko Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez bidalitako idazpenak egiteko barruko kontabilitate sistema hori erabili dela eta bidalitako idazpenak ondo erregistratu direla bertan. Nolanahi ere, agregaturik zehaztu behar diren eragiketak eta mugimenduak, 4. artikulua 2. apartatua aipatzen direnak, banakatuta erregistratu ahal izango dira barruko kontabilitate sisteman.»

Zazpi. 9. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

«9. artikulua. Mezu informatikoen formatua eta diseinua

Fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuen kontabilitate idazpenen datuak emateko eta kontabilitatearen inguruko jakinarazpenak egiteko Arabako Foru Aldundiari elektronikoki bidaltzen zaizkion mezu informatikoak eranskinen zehazten diren erregistro eremuen arabera egin behar dira, eta beren formatua eta diseinua Arabako Foru Aldundiaren interneteko egoitza elektronikoan ageri direnak izan behar dira.»

Zortzi. 10. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

«10. artikulua. Egindako eragiketen eta mugimenduen frogagiriak eta haiei buruzko informazioa

1. Kontabilitate idazpen bakoitzak bere frogagiria eduki behar du. Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako tauletan eragiketa, mugimendu eta prozesu bakoitza frogatzeko erabili beharreko agiriak eta euskarriak zehazten dira.

2. Foru agindu honen 2. artikulua aipatzen diren establezimenduen titularrek beti eduki behar dute dokumentazio eta informazio hau Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren ikuskapeneko eta esku hartzeko zerbitzuen eskura:

a) Establezimenduan egindako fabrikazio edota transformazioko eragiketen frogagiriak eta haiei buruzko informazioa, honako datu hauek zehaztuta: hasiera eta amaiera datak, erabilitako lehengaiak eta produktuak, sortutako produktuak, eta lan agiriaren edo fabrikazio edo transformazio eragiketaren zenbakia.

b) Mugimenduen, prozesuen eta izakinen frogagiriak (arauzkoak eta komertzialak), eta fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuen eta haiek sortzeko behar diren lehengaien inbentarioen xehetasuna.

c) Foru agindu honen 4. artikulua 2. apartatua ezartzen denaren arabera kontabilitate idazpen bakar batean agregatuta adierazten diren eragiketa guztien banakatutako frogagiriak eta informazioa.

d) Kontabilitate idazpenak foru agindu honen 6. artikulua xedatzen denari jarraikiz bidaltzeko erabilitako euskarri informatikodun kontabilitate sistema, behar denean.

3. Egindako mugimenduen, produktuen, prozesuen, eragiketen eta izakinen frogagiriak eta haiei buruzko informazioa (eta, behar denean, kontabilitate sistema ere bai) ikuskapen zerbitzuen (eta, behar denean, esku hartzeko zerbitzuen) eskura egon behar dira establezimenduan bertan, administrazioak likidazioaren bidez zerga zorra zehazteko eskubidea iraungitzen ez den bitartean.

Horretarako, aurkeztu beharreko agiriak euskarri informatikoan gorde ahalko dira, baldin eta luzamendurik gabe kontsultatu ahal badira establezimendutik bertatik.»

Bederatzi. Urtarrilaren 27ko 30/20 Foru Aginduaren eranskinaren ordezkari foru agindu honetan ageri dena ezartzen da.

Hamar. Lehenengo xedapen gehigarriaren 1. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

«1. Ardoaren eta Edari Hartzituen gaineko Zergaren karga tasa zero den bitartean ardoa edo beste edari hartzitu bat egiteko baimendutako establezimenduen titularrek foru agindu honen

I. tituluan xedatzen den bezala arztezu beharko dute kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, berezitasun hauek kontuan hartuz:

a) Egutegiko hil batean ardoa, muztioa eta edari hartzituak sortzeko egiten diren eragiketak eta lehengai sarrerak eta horien irteerak (txikizkako salmentaren gaineko zerga sortuta) egin diren hileko azken egunean egintzat jo ahal izango dira kontabilitatearen ondorioetarako.

b) Ardoa, muztioa eta edari hartzituak sortzeko egiten diren eragiketei eta lehengai sarrerei eta horien irteerei (txikizkako salmentaren gaineko zerga sortuta) buruzko kontabilitate idazpenak hileko kontabilitate idazpen bakar batean agregatuta aurkeztu ahal izango dira.»

Hamaika. Xedapen gehigarria gehitzen da, seigarrena; hona testua:

«Xedapen gehigarria.— Nola aurkeztu behar dituzten kontabilitate idazpenak edari alkohol-dunak egiteko baimena daukaten establezimenduek, baldin eta Ardoaren eta Edari Hartzituaren gaineko Zergaren eta tarteko produktuen gaineko zergaren kargapeko produktuak baino egiten ez badituzte eta horien urteko ekoizpena 100.000 litrotik gorakoa ez bada.

Ardoaren eta Edari Hartzituaren gaineko Zergaren karga tasa zero den bitartean edari hartzituak egiteko baimendutako establezimenduen titularrek, hain zuzen ere ardoaren eta edari hartzituaren gaineko zergaren eta tarteko produktuen gaineko zergaren kargapeko produktuak baino egiten ez dituztenek, eta horien urteko ekoizpena 100.000 litrotik gorakoa ez bada, foru agindu honen I. tituluan xedatzen den bezala arztezu beharko dute kontabilitatea euskarri informatikodun kontabilitate sistema bat erabiliz (foru agindu honen 6. artikulua). Nolanahi ere, bulego kudeatzaileak honako berezitasun hauek aplikatzeko baimena eman ahal izango die, eskatuz gero:

a) Ardoa eta muztioa egiteko eragiketei eta lehengaien sarrerei buruzko kontabilitate idazpenak hileko kontabilitate idazpen bakar batean agregatuta aurkeztu ahal izango dira.

b) Foru agindu honen 6. artikulua 3. apartatuan kontabilitate idazpenak elektronikoki aurkezteko xedatzen den epealdia mugimendua, eragiketa edo prozesua egin eta hurrengo hileko azken egun baliodunean amaituko da.

Horretarako, urteko ekoizpen bolumena aurreko egutegiko urtean titularraren establezimendu guztietan sortutakoa izango da. Baldin eta aurreko egutegiko urtean jarduera urte osoan egin ez bada, ekoizpen bolumena urtekotu egingo da. Jarduera ekitaldian hasi bada, ekoizpen bolumen zenbatetsia hartuko da kontuan.

Sistema hau aplikatzeko eskabidea ondorioak sortu behar dituen egutegiko urtea hasi baino lehen aurkeztu behar zaio bulego kudeatzaileari. Jarduera ekitaldian hasi bada, eskabidea zerga berezien lurralde erregistroan inskribatzeko eskabidearekin batera aurkeztu behar da.»

Hamabi. Zazpigarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona testua:

«Zazpigarren xedapen gehigarria. Ozpin fabrikak

Ozpin fabrika gisa jarduteko baimendutako establezimenduek foru agindu honen I. tituluan xedatzen den bezala arztezu beharko dute Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien kargapeko produktuen kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, berezitasun hauek kontuan hartuz:

a) Fabrikazioaren gaineko Zerga berezien kargapeko produktuen kontabilitatea arztezu beharra (Zerga berezien Erregelamenduaren 50. artikuluan ezartzen dena) betetzeko, ozpin fabrika gisa jarduteko baimendutako establezimenduek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dituzte establezimenduan egindako mugimenduen eta erabilitako alkoholaren eta edari alkohol-dunen idazpenak eta sortutako ozpinari buruzkoak. Halaber, ozpin izakinak kontabilitatean zehatz-mehatz agertzeko, hilero establezimenduan erabilitako ozpinaren inguruko mugimenduak eta ozpin irteerak biltzen dituen kontabilitate idazpen bat aurkeztu beharko dute.

b) Gainera, kontu korrante batean honako hauek zehaztu behar dituzte: establezimenduan zenbat ozpin sortu eta erabili den; ozpin irteerak; beste establezimendu batzuetan sortu eta ozpin fabrikara ekarritako ozpinen mugimenduak eta erabilerak. Erregistro edo kontu korrante hori zerga administrazioaren eskura egon beharko da establezimenduan, ozpin mugimenduen frogagiriekin batera; ez da aurkeztu beharko Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

c) Ozpin fabrika gisa jarduteko baimendutako establezimenduek hileko idazpen agregatu batean aurkeztu ahal izango dituzte establezimenduan ozpina egiteko eragiketen idazpenak, baldin eta kontabilitatea euskarri informatikodun kontabilitate sistema bat erabiliz artezten badute, foru agindu honen 6. artikuluan xedatzen den bezala.»

Azken xedapen bakarra. Indarrean sartzea

Foru agindu hau 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 13a

Bigarren Diputatu Nagusiorde eta Ogasun Finantza eta Aurrekontu, Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasunaren zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

Eranskina

I. Kontabilitatea irekitzea eta ixtea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan

Kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez artezten duten establezimenduen titularrek egoitza horren bidez jakinarazi beharko dituzte kontabilitate ekitaldi bakoitzaren irekiera eta itxiera, foru agindu honen 4 bis artikuluan ezartzen denaren arabera.

Kontabilitate ekitaldia ireki eta itxeko jakinarazpenak mezu elektronikoen bidez egingo dira. Mezuak eduki hau edukiko dute:

1. Identifikazio datuak

1.1. Establezimenduaren titularraren IFZ

Nahitaezko datua.

Establezimenduaren titularraren Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) adierazi behar da.

1.2. Establezimenduaren titularraren izena/sozietate izena

Nahitaezko datua.

Establezimenduaren titularraren izen-abizenak adierazi behar dira, edo sozietate izena.

Pertsona fisikoen kasuan, eremu hau ABIZENA1/ABIZENA2/IZENA formatuarekin beteko da.

Establezimenduaren JEK

Nahitaezko datua.

Establezimenduaren titularraren Jarduera eta Establezimendu Kodea (JEK) adierazi behar da.

2. Kontabilitate ekitaldia

Nahitaezko datua.

Irekiera edo itxiera jakinarazpenaren xede den kontabilitate ekitaldia adieraziko da, ekitaldia bat datorren urte naturalaren arabera identifikatuta.

II. Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez kontabilitateko idazpenak ematea

Fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuen kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez erabiltzen den euskarri informatikodun kontabilitate sistema baten bidez arteztu behar duten establezimenduen titularrek eta fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatea egoitza horren bidez arteztea hautatzen duten establezimenduen titularrek bide elektronikoz eman beharko dituzte kontabilitateko idazpenak, eranskin honetan zehaztutako edukiarekin eta jarraibideen arabera egindako mezu elektronikoen bidez.

Foru agindu honen 4 bis artikuluan ezartzen denaren arabera itxi ez diren ekitaldietako kontabilitate idazpenak soilik eman ahal izango dira. Hala ere, justifikatutako kasuetan, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko ikuskapeneko eta kontu hartzailezako zerbitzuek baimena eman ahal izango dute itxita dagoen kontabilitate ekitaldi bat berriro

irekitzeko eta hari dagozkion kontabilitate idazpenak emateko, gehienez ere bost egun balioduneko epealdian.

Kontabilitate idazpen bakoitzean nahitaez, baldintzapean edo aukeran bete behar diren informazio eremuak daude (eremuak nolakoak diren atal honetan zehaztuko da).

Ondorio horietarako, kontabilitate idazpenen edukia emateko eremu batzuk nahitaezkoak dira, beste batzuk baldintzapekoak eta beste batzuk aukerakoak:

- a) Nahitaezkoa: kasu guztietan bete behar da.
- b) Baldintzapekoa: ezarritako baldintza betetzen bada, nahitaez bete behar da.
- c) Aukerakoa: borondatez bete ahal da.

Kontabilitate idazpenen edukia emateko informazio eremuak honako hauek dira:

1. Operadorea

1.1. Establezimenduaren titularraren IFZ

Nahitaezko datua.

Establezimenduaren titularraren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) adierazi behar da.

1.2. Establezimenduaren JEK

Nahitaezko datua.

Establezimenduaren titularraren jarduera eta establezimendu kodea (JEK) adierazi behar da.

2. Kontabilitate idazpena

2.1. Barruko erreferentzia zenbakia

Baldintzapeko datua.

Establezimenduaren titularrak erabakitzen badu kontabilitate idazpenak euskarri informatikodun kontabilitate sistematik hornitzea, foru agindu honen 6. artikuluan xedatzen den moduan, sistema horretan kontabilitateko idatzoharra egitean sortzen den barruko erreferentzia zenbakia adierazi beharko du.

Barruko erreferentzia zenbaki bat bakarrik egon behar da establezimendu bakoitzeko.

2.2. Aurreko idazpenaren zenbakia

Baldintzapeko datua.

Deuseztatutako aurreko idazpen bat ordezkatzan duten idazpen berriari alta ematen zaionean bete behar da.

Arabako Foru Ogasunak deuseztatutako kontabilitate idazpenari egoitza elektronikoaren bidez hornitzean esleitutako zenbakia adierazi behar da.

2.3. Itteerako aurreko idazpenaren zenbakia (berriro sartzea)

Baldintzapeko datua.

Zerga Berezien Erregelamenduaren 27. eta 38.1 artikuluetan arautzen diren establezimenduan berriro sartzeko eragiketen kontabilitate idazpenetarako adierazi behar da.

Arabako Foru Ogasunak deuseztatutako kontabilitateko idazpenari esleitutako idazpen zenbakia edo birsartutako produktuek establezimendutik egindako irteera erregistratzeko erabili zena adieraziko da, hura egoitza elektronikoaren bitartez ematean.

3. Data

3.1. Mugimenduaren data

Nahitaezko datua.

Kontabilitatean agertu beharreko produktuen edo prozesuaren mugimendua noiz gertatu den adieraziko da UUUU/HH/EE formatuarekin.

3.2. Kontabilitate erregistroaren data

Baldintzapeko datua.

Establezimenduaren titularrak erabakitzen badu kontabilitate idazpenak euskarri informatikodun kontabilitate sistematik hornitzea, foru agindu honen 6. artikuluan xedatzen den bezala, sistema horretan idazpena zer egunetan erregistratzen den adieraziko da.

4. Mugimenduaren datuak

4.1. Mugimendu mota

Nahitaezko datua.

Idazpenaren xede den mugimendua, eragiketa edo prozesua identifikatzen duen mugimendua nolakoa den adieraziko da, fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako tauletan jasotako aukeren arabera.

Mugimendu, eragiketa edo prozesu bakoitzaren identifikazioa Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako argitaratutako mugimendu moten deskribapenetara egokitu behar da.

4.2. Informazio gehigarria: diferentzia negatiboa

Baldintzapeko datua.

Kontabilitateko mugimendua honelakoa denean beteko da: diferentzia negatiboa biltegitratzean edo fabrikazioan.

Kontabilizatutako diferentzia negatiboa nolakoa den adieraziko da, fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako tauletako balioen arabera.

4.3. Zerga araubidea

Nahitaezko datua.

Kontabilitate idazpenaren xede diren produktuei aplika dakiekeen zerga araubidearen identifikazioa fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako zerga araubide motetara egokitu behar da.

5. Fabrikatzeko/eskuratze eragiketen datuak

Baldintzapeko datu multzoa.

Datu multzo hau mugimendu mota hau kontabilizatzen denean adierazi behar da:

- Fabrikatua/Eskuratua.
- Autokontsumoa/Erabilia.
- Autokontsumoa/Norberaren eragiketetan erabilia.
- Fabrikazioko diferentzia negatiboak.
- Fabrikazioko diferentzia positiboak.

Fabrikazio eragiketa berari lotutako kontabilitateko idazpen guztietan eduki bera jarri beharko da datu multzo honetako eremu guztietan.

Kontabilitateari dagokionez, fabrikazio eragiketatzat hartuko dira, halaber:

- Ontziratzeko edota botilatzekeo eragiketak.
- Hidrokarburoen gaineko zergaren esparruan, erregelamendu bidez onartutako markatzaileak/trazatzaileak eta hidrokarburoen nahasketak gehitzeko eragiketak.
- Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren eremuan, erabateko desnaturalizazio edo desnaturalizazio partzialeko eragiketak eta zahartze bidezko edari deribatuak egiteko eragiketak.

5.1. Eragiketa mota.

Nahitaezko datua.

Egindako eragiketa nolakoa den adierazi behar da, fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako tauletako kode egokiarekin identifikatuta.

5.2. Eragiketaren zenbakia.

Nahitaezko datua.

Egindako eragiketari enpresak esleitutako zenbakia adierazi behar da.

5.3. Fabrikazio unitatearen deskribapena.

Baldintzapeko datua.

Fabrikazio unitate bat baino gehiago dituzten fabrika gisa baimendutako establezimenduetan beteko da, Zerga Berezien Legearen 4.19 artikuluan eta foru agindu honetan zehaztutako eta establezimenduan egindako fabrikazio eragiketei dagokienez.

Fabrikazio edo transformazio eragiketa edo autokontsumoa egin den fabrikazio prozesuaren unitatea adieraziko da.

Fabrikazioko edo transformazioko diferentzia mugimenduetan, diferentzia negatiboa edo positiboa gertatu den fabrikazio prozesuaren unitatea adierazi behar da.

5.4. Fabrikazio unitatearen kodea.

Baldintzapeko datua.

Fabrikazio unitate bat baino gehiago dituzten fabrika gisa baimendutako establezimenduetan beteko da, Zerga Berezien Legearen 4.19 artikuluan eta foru agindu honetan zehaztutako eta establezimenduan egindako fabrikazio eragiketei dagokienez.

Establezimenduak eragiketa egin den fabrikazio unitateari esleitutako kodea adieraziko da.

Fabrikazioko edo transformazioko diferentzia mugimenduetan, diferentzia negatiboa edo positiboa gertatu den fabrikazio prozesuaren unitateari esleitutako kodea adierazi behar da.

5.5. Aurreko fabrikazio eragiketaren zenbakia.

Aukerako datua.

Fabrika gisa baimendutako establezimenduetan bete daiteke, amaitutako produktuak ekoizpen prozesuaren faseei lotutako ondoz ondoko fabrikazio eragiketen bidez lortzen direnean.

Establezimenduak aurreko fabrikazio eragiketari esleitutako zenbakia adierazi behar da.

6. Frogagiria

Nahitaezko datu multzoa.

6.1. Frogagiri mota

Nahitaezko datua.

Kontabilitateko idatzoharraren frogagiri eta euskarri gisa erabiliko den dokumentua (euskarri fisikoa zein elektronikoa) identifikatu behar da jarraibide hauen arabera:

- Irekiera idazpenean, establezimenduko izakinen inbentarioaren emaitza jasotzen duen agiria adierazi behar da, edo aurreko ekitaldiaren azken egunean egindako izakinen zenbaketaren emaitza jasotzen duen agiria.

- Mugimenduak, eragiketak edo prozesuak produktuen edo lehengaien zirkulazioa eragiten badu, zirkulazioa babesten duen dokumentua adierazi behar da (administrazio agiri elektronikoa, larrialdietako bide agiria, zirkulazio albarana, bideko salmentetako zirkulazio albarana, aduana agiria).

- Idazpenaren xede den mugimendua aireontziak erregai salbuetsiz hornitzea bada, horren frogagiri gisa balio duen entrega egiaztagiria adierazi behar da, Zerga Berezien Erregelamenduaren 101. artikuluan ezartzen duenaren arabera.

- Idazpenaren xede den mugimendua ontziak erregai salbuetsiz hornitzea bada, horren frogagiri gisa balio duen agiria adierazi behar da, Zerga Berezien Erregelamenduaren 102. artikuluan ezartzen duenaren arabera.

- Idazpenaren xede den mugimendua, eragiketa edo prozesua bulego kudeatzailearen baimen baten edo kontu hartzaitzako zerbitzuaren eginbide baten babesean egiten bada, bulego kudeatzailearen baimena edo kontu hartzaitzako zerbitzuaren eginbidea adierazi behar da.

- Kontabilitateko idazpenak biltegitratze diferentzia bat islatzen badu, izakin zenbaketaren emaitza jasotzen duen dokumentua, diferentzia islatzen duena, adierazi behar da. Ondorio horietarako, zergapekoak egindako zenbaketaren emaitza islatzen duen agiria edo Administrazioak egindako zenbaketaren emaitza jasotzen duen kontu hartzaitzako zerbitzuaren eginbidea hartuko da kontuan.

- Kontabilitateko idazpenak fabrikazio, botilatze edo ontziratze eragiketa bat islatzen badu, fabrikazio edo lan, botilatze edo ontziratze parte adierazi behar da, edo interesdunak eragiketaren euskarri modura erabilitako beste agiriren bat.

- Kontabilitateko idazpenaren xede den mugimendua alkohola fabrikatzeko eragiketa bada, azaroaren 27ko 1487/1998 Foru Aginduaren bidez onetsitako lan adierazpena zehaztu behar da.

- Kontabilitateko idazpena foru agindu honen 4. artikularen 2. apartatuen xedatutakoaren arabera idazpen bakarrean modu agregatuan hornitutako eragiketa edo mugimendu batzuei buruzkoa bada, horniduraren xede diren eragiketak modu agregatuan identifikatzen dituen dokumentua edo euskarria adierazi behar da.

- Beste eragiketa, mugimendu edo prozesu batzuetan, kontabilitateko idatzoharraren frogagiri gisa erabilitako dokumentua edo euskarria adierazi behar da.

Dokumentua nolakoa den zehaztu behar da aurreko jarraibideen arabera, fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako tauletako kode egokiarekin identifikatuta.

6.2. Frogagiriaren zenbakia.

Nahitaezko datua.

Kontabilitateko idatzoharraren euskarri gisa balio duen frogagiriari esleitutako zenbakia adierazi behar da, honako xehetasun hauen arabera:

- Irekiera idazpenean adierazitako hasierako izakinen frogagiriari esleitutako zenbakia.
- Administrazio agiri elektronikoa (E-DA): Zerga administrazioak barneko edo Batasunaren barruko EMCS sisteman esleitutako erreferentziako administrazio kodea (ARC).
- Larrialdietako bide agiria: dokumentuari esleitutako tokiko erreferentzia zenbakia.
- Zirkulazio albarana: establezimenduak esleitutako zirkulazio albaranaren erreferentzia zenbakia.
- Bideko salmentetako zirkulazio albarana: Zerga Administrazioak zirkulazio albaranari esleitutako erreferentzia kode elektronikoa.
- Entrega egiaztagiria: ZBEaren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera aireontzietarako hornidurak justifikatzeko emandako entrega egiaztagiriei esleitutako zenbakia.
- Inportazio dokumentua: inportazioko aduana dokumentuari esleitutako zenbakia.
- Bulego kudeatzailearen baimena: bulego kudeatzailearen baimenaren zenbakia.
- Kontu hartzailezako zerbitzuaren eginbidea: eginbidearen data edo zenbakia.
- Zergapekoak egindako zenbaketaren emaitza jasotzen duen dokumentuari esleitutako zenbakia.
- Fabrikazio edo lan, ontziratze edo botilaratze partearen zenbakia, edo fabrikazio eragiketen euskarri den dokumentuari esleitutako zenbakia.
- Lan adierazpenaren zenbakia.
- Horniduraren xede diren eragiketak modu agregatuan frogatzen dituen dokumentuari esleitutako zenbakia.
- Beste batzuk: kontabilitateko idatzoharraren egiaztagiri gisa erabilitako beste dokumentu edo euskarri bati emandako identifikazioa eta zenbakia.

7. Jatorria/helmuga

Baldintzapeko datu multzoa.

Kontabilitateko idazpeneko mugimendua establezimendutik egindako produktu sarrera edo irteera denean bete behar da datu multzo hau.

Aurrekoa gorabehera, ez da datu multzo hau bete behar kontabilitateko idazpena honako hauei buruzkoa bada:

- Foru agindu honetan arautzen diren kasuetan idazpen bakarrean modu agregatuan emandako mugimendu batzuk.

- Zergaren karga tasa osoa jasaten duen txikizkako salmenta baten ondoriozko produktu irteerak.

- Zerga Berezien Erregelamenduaren 27. artikuluan arautzen diren bideko salmenten prozedura aplikatzen zaien produktuen irteerak.

7.1. Jatorria/helmuga: identifikaziorako dokumentu mota

Nahitaezko datua.

Bidaltzailearen identifikaziorako dokumentua (produktuen sarrerak) edo hartzailearen identifikaziorako dokumentua (produktuen irteerak) nolako den adierazi behar da kode hauen arabera:

1. taula. Bidaltzailearen edo hartzailearen dokumentu moten kodeak.

Azalpena	Balioak
Espainiako IFZ edo AIZ	1
Batasunaren barruko BEZ	
IFZ	2
Beste batzuk	3
Aduana	4

7.2. Jatorria/helmuga: identifikaziorako dokumentuaren zenbakia.

Nahitaezko datua.

Kontabilitateko idatzoharraren xede den mugimenduaren hartzaileak/bidaltzaileak Espainiako IFZ edo AIZ badauka, horixe jarri behar da.

Kontabilitateko idatzoharraren xede den mugimenduaren hartzaileak/bidaltzaileak ez badauka Espainiako IFZ edo AIZik, baina Espainia ez Europar Batasuneko beste estatu bateko zerga agintarietara esleituriko BEZ IFZ badauka, titularrak den BEZ IFZ ezarri behar da.

Zirkulazioa aduana agiri baten babesean egiten diren inportazio/esportazio eragiketetan, aduana izapideak zer aduanatan egin diren identifikatu behar da, fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako tauletako kodeen arabera.

Bestelakoetan, hartzailea/bidaltzailea identifikatzen duen beste edozein zenbaki ezarri behar da.

7.3. Jatorria/helmuga: izena edo sozietate izena.

Nahitaezko datua.

Mugimenduaren hartzailearen (establezimenduko produktuen irteerak) edo bidaltzailearen (establezimenduko produktuen sarrerak) izena edo sozietate izena adierazi behar da.

Pertsona fisikoaren kasuan, eremu hau ABIZENA1/ABIZENA2/IZENA formatuarekin bete behar da.

7.4. Jatorria/helmuga: JEK/SEED zenbakia.

Baldintzapeko datua.

Mugimendu motaren eta zerga araubidearen arabera, indarrean dagoen araudiaren arabera, hartzaileak edo bidaltzaileak JEK edo SEED zenbaki bat izan behar duten mugimenduetan bete behar da.

Barruko lurralde eremuko mugimenduetan, mugimenduaren hartzailearen (establezimenduko produktuen irteerak) edo bidaltzailearen (establezimenduko produktuen sarrerak) JEK zenbakia adierazi behar da, edukiz gero.

7.5. Hornigailuaren zenbakia.

Baldintzapeko datua.

Kontabilitateko idazpenak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez ematen dituzten hidrokarburoen xehekari gisa baimendutako establezimenduen titularrek bete behar dute, kontabilitateko idazpenaren xede den mugimenduak establezimenduko produktuaren irteera eragiten duenean.

Hornikuntza egiteko erabiltzen den hornigailuari enpresak esleitutako zenbakia adierazi behar da.

7.6. Kontagailuaren irakurketa.

Baldintzapeko datua.

Kontabilitateko idazpenak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez ematen dituzten hidrokarburoen xehekari gisa baimendutako establezimenduen titularrek bete behar dute, kontabilitateko idazpenaren xede den mugimenduak establezimenduko produktuaren irteera eragiten duenean.

Hornikuntza egiteko erabiltzen den tasa murriztuko gasolio hornigailuaren kontagailuak ematen duen kopurua adierazi behar da.

7.7. Aireontziaren identifikazioa.

Baldintzapeko datua.

Kontabilitateko idazpenak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez ematen dituzten instalazio pribatuak erabiltzen dituzten aireontzien titular gisa baimendutako establezimenduek bete behar dute, kontabilitateko idazpenaren xede den mugimendua hidrokarburoen gaineko zerga salbuetsita jasotako produktuak erabiltzeak eragiten duenean.

Hornikuntza egiten zaion aireontziaren matrikula adierazi behar da.

8. Zerga bereziaren jasanarazpenaren datuak

Baldintzapeko datu multzoa.

Datu multzo hau establezimenduko produktuen irteeren mugimenduen kasuan bete behar da, baldin eta establezimenduaren titularrak zerga berezia jasanarazi behar badu Zerga Berezien Arauaren 14.2 artikuluan eta Zerga Berezien Erregelamenduaren 18. artikuluan xedatutakoaren arabera eta etete araubideko fabrikazioa, biltegiatzea edo transformazioa besteren kontura egiten bada.

Datu hauek zerga tasa osoa jasanarazten duten eragiketetan zein zerga tasa murriztua jasanarazten dutenetan adierazi behar dira, bai eta salbuespen bat aplikatu ahal den kasuetan ere.

Zerga berezia jasanarazi zaion pertsona edo erakundearen datuak adierazi behar dira, Zerga Berezien Arauaren 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

8.1. Zerga bereziaren jasanarazpenaren hartzailea: identifikaziorako dokumentu mota.

Jasanarazpenaren hartzailearen identifikaziorako dokumentua nolako den adierazi behar da honako kode hauen arabera:

2. taula. Bidaltzailearen edo hartzailearen dokumentu moten kodeak.

<u>Azalpena</u>	<u>Balioak</u>
Espainiako IFZ edo AIZ	1
Batasunaren barruko BEZ	
IFZ	2
Beste batzuk	3

8.2. Zerga bereziaren jasanarazpenaren hartzailea: identifikaziorako dokumentuaren zenbakia.

Jasanarazpenaren hartzaileak Espainiako IFZ edo AIZ badauka, horixe jarri behar da.

Jasanarazpenaren hartzaileak Espainiako IFZ edo AIZik ez badauka, baina Espainia ez Europar Batasuneko beste estatu bateko zerga agintarietako BEZ IFZa badauka, titularraren BEZ IFZa ezarri behar da.

Bestelakoetan, jasanarazpenaren hartzailea identifikatzen duen beste edozein zenbaki ezarri behar da.

8.3. Zerga bereziaren jasanarazpenaren hartzailea: izena edo sozietate izena.

Jasanarazpenaren hartzailearen izena edo sozietate izena eman behar da.

Jasanarazpenaren hartzailea pertsona fisikoa bada, haren izena adierazi behar da ABIZENA1/ABIZENA2/IZENA formatuarekin.

9. Produktua

Kontabilitateko idazpenen xede diren produktuak foru agindu honen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera identifikatu behar dira.

Produktu bat identifikatu ondoren, horren inguruko eragiketa, mugimendu eta prozesuei buruzko kontabilitateko idazpen guztiek datu berak eduki behar dituzte foru agindu honen 3.3 artikuluan ezartzen diren eremu guztietan.

9.1. Epigrafe fiskala

Baldintzapeko datua.

Kontabilitateko mugimenduko produktua fabrikazioaren gaineko zerga berezien eremu objektiboan dagoenean adierazi behar da datu hau.

Kontabilitate mugimenduko fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuaren epigrafe fiskala adierazi behar da, fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako tauletako kodeen arabera.

9.2. Epigrafearen kodea.

Baldintzapeko datua.

Kontabilitateko mugimenduko produktua fabrikazioaren gaineko zerga berezien eremu objektiboan dagoenean adierazi behar da datu hau.

Kontabilitate mugimenduko fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko produktuaren epigrafearen kodearen gakoa adierazi behar da, fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako tauletako kodeen arabera.

9.3. NC kodea

Nahitaezko datua.

Kontabilitate mugimenduko produktuaren NC kodea (Muga-zergen nomenklaturari, estatistikari eta aduanetako muga-zerga erkideari buruzko uztailaren 23ko 2658/1987 Erregelamenduan (EEE) arautzen dena) adierazi behar da, eranskinaren indarreko testuari jarraikiz.

Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren eta hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboan dauden produktuen kasuan, zortzi digituko NC kodea adierazi behar da.

Ardoaren eta edari hartzituen gaineko zergaren eta tarteko produktuen gaineko zergaren eremu objektiboan dauden produktuen kasuan, NC kodea Zerga Berezien Arauaren 27. artikuluan eta 31. artikuluan ezarritako digitu mailarekin eman behar da, hurrenez hurren.

Garagardoaren gaineko zergaren eta tabako laboreen gaineko zergaren eremu objektiboan dauden produktuen kasuan, NC kodea lau digiturekin eman behar da.

Fabrikazioaren gaineko zerga berezien eremu objektiboan ez dauden produktuen kasuan, NC kodea gutxienez lau digiturekin eman behar da.

Alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zerga berezien esparruan jarduten duten establezimenduetan kontabilitateko idazpena epigrafe eta epigrafe kode berak dituzten produktuei buruzkoa bada, horien NC kodeak desberdinak badira eta foru agindu honen eranskinaren 9.8 apartatuan zehaztutako produktu erreferentzia bakarra badute, horren berri eman behar da «HAINBAT» kodearen bidez.

9.4. Gakoa

Baldintzapeko datua.

Kontabilitateko mugimenduko produktua zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako produktuen gakoaren tauletako bat denean adierazi behar da datu hau.

Zerga Berezien Legearen 32. artikuluan aipatzen diren tarteko produktuen kasuan, gainera, fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako taulen arabera tarteko produktu landuari dagokion gakoa adierazi behar da.

9.5. Kantitatea

Nahitaezko datua.

Kantitatea adierazi behar da, fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako taulen arabera produktuaren epigrafeari dagokion neurketa unitatean adierazita.

Baldin eta produktuaren bolumena bada zerga bereziaren zerga oinarria, zergaren zerga oinarria zehazten duen tenperatuaren arabera adierazi behar da kantitatea.

9.6. Neurketa unitatea.

Nahitaezko datua.

Kontabilitate idazpeneko produktuaren neurketa-unitatearen kodea adierazi behar da, fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako tauletan ageri dena.

9.7. Azalpena.

Nahitaezko datua.

Kontabilitate idazpeneko produktua deskribatu behar da; merkataritza deskribapena edo produktua behar bezala identifikatzen duen beste bat erabil daiteke.

Deskribapenak bakarra izan beharko du produktu bakoitzerako, eta nahikoa produktua zehaztasunez identifikatzeko.

Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren kargapeko produktuen kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko apirilaren 17ko 2019/787 (EB) Erregelamenduan ezartzen diren definizioen arabera adierazi behar da produktuen izendapena (erregelamendu hori honako hauei buruzkoa da: edari destilatuen definizioa, izendapena, aurkezpena eta etiketatzea; edari destilatuen izenak beste elikagai batzuen aurkezpenean eta etiketatzean erabiltzea; edari destilatuen adierazpen geografikoak babestea; eta edari alkoholduetan nekazaritza-jatorriko alkohol etilikoa eta destilatuak erabiltzea; gainera, beraren bidez 110/2008 (EE) Erregelamendua indargabetzen da).

Kontabilizatutako produktua jatorri deitura babestu batean edo adierazpen geografiko babestu batean bada, jatorri deitura babestuan edo adierazpen geografiko babestuan sartutako ardo, likore ardo, mahastizaintzako eta ardogintzako produktu aromatizatu edo edari destilatu motaren izendapen zehatza adierazi ahal izango da.

9.8. Erreferentzia.

Nahitaezko datua.

Kontabilitateko idatzoharreko produktuari establezimenduak esleitutako erreferentzia zenbakia edo kodea adierazi behar da.

9.9. Alkohol gradu bolumetrikoren bereganatua.

Baldintzapeko datua.

Kontabilizatutako produktuak alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zerga berezien kargapean badaude, alkohol hutsaren bolumen kopurua erregistratu da, 20°C zentigraduko tenperaturan, produktuaren 100 bolumenetan dagoena tenperatura horretan (bi dezimal).

9.10. Alkohol puruaren kantitatea.

Baldintzapeko datua.

Kontabilizatutako produktuak alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren kargapean badaude, jasotako alkohol puruaren kantitatea erregistratu behar da, fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa dauden tauletako neurketa unitatean adierazita, kontabilitateko idazpeneko produktuaren epigrafe kodearen arabera (hiru dezimal gehienez).

Alkohol puruaren kantitatea kalkulatzeko, produktuaren kantitatea (9.5 informazio eremua) alkohol gradu bolumetrikoren bereganatuaz (9.9 informazio eremua) biderkatu behar da.

9.11. Dentsitatea.

Baldintzapeko datua.

Alkoholaren fabrikazioan, kontabilitateko idazpeneko produktua zerealeetatik edo bestelako substantzia amilazeo edo azukredunetatik lortutako muztio edo ardo hartzitua bada, lehengai modura erabili dena, haren dentsitatea adierazi behar da, Kg/L-tan (sei dezimal gehienez).

Garagardoaren fabrikazioan, kontabilitateko idazpeneko produktua muztioa bada, haren dentsitatea adierazi behar da, Kg/L-tan (sei dezimal gehienez).

Kontabilitateko idazpeneko produktua hidrokarburoa bada eta zerga bereziaren zerga oinarria produktuaren bolumena bada, 15 °C-ko dentsitatea adierazi behar da, KG/L-tan (sei dezimal gehienez).

9.12. Berotze ahalmena.

Baldintzapeko datua.

Kontabilitateko idazpeneko produktua hidrokarburoa bada eta zerga bereziaren zerga oinarria haren berotze ahalmena bada, tonako berotze ahalmen gordina adierazi behar da, gigajouletan (GJ) (hiru dezimal gehienez).

9.13. Aterakin portzentajea.

Baldintzapeko datua.

Garagardoaren fabrikazioan, kontabilitateko idazpeneko produktua lehengaia edo muztioa bada, aterakin naturalaren portzentajea adierazi behar da, hain zuzen ere aterakin kilogramoen eta lehengai kilogramoen arteko zatiketaren emaitza (hiru dezimal gehienez).

9.14. Aterakin kilogramoak.

Baldintzapeko datua.

Garagardoaren fabrikazioan, kontabilitateko idazpeneko produktua lehengaia edo muztioa bada, daukan aterakin naturalaren kantitatea zehaztu behar da, kilogramoetan adierazita (hiru dezimal gehienez).

9.15. Batez besteko plato gradua.

Baldintzapeko datua.

Garagardoaren fabrikazioan, kontabilitateko idazpeneko produktua hartzidurara pasatutako muztioa, elaborazio fasean dagoen garagardoa edo garagardoaren gaineko zergaren eremu objektiboko produktua bada, Zerga Berezien Arauaren 20. artikulua 9. apartatua zehazten den batez besteko plato gradua eman behar da (hiru dezimal gehienez).

9.16. Gradu azetikoa.

Baldintzapeko datua.

Kontabilitateko idazpeneko produktua ozpina bada, gradu azetikoa adierazi behar da, hain zuzen ere 100 mililitro ozpinetan zenbat gramo azido azetiko dauden (hiru dezimal gehienez).

9.17. Tabako produktuaren pisu garbia.

Baldintzapeko datua.

Tabako laboreen gaineko zergaren kargapeko produktuen kasuan, pisu garbia adierazi behar da, kilogramoetan eta bi dezimalekin, hezetasun edukia pisuaren % 14 dela.

9.18. Tabako laborearen balioa.

Baldintzapeko datua.

Kontabilizatutako produktua tabako laboreen gaineko zergaren kargapean badago, haren balio globala adierazi behar da, euroetan eta bi dezimalekin. Balio hori kalkulatzeko, kontuan hartuko da Penintsulako edo Balear Uharteetako tabako eta tinbre saltokietan aplikatzen den jendaurreko salmenta prezioa, «Estatuko Aldizkari Ofizialean» tabako labore bakoitzerako argitaratua.

9.19. Tabako laborearen publikoarentzako salmenta prezioa.

Baldintzapeko datua.

Kontabilizatutako produktua tabako laboreen gaineko zergaren kargapean badago, Penintsulako edo Balear Uharteetako tabako eta tinbre saltokietan publikoarentzat duten gehieneko salmenta prezioa adierazi behar da, «Estatuko Aldizkari Ofizialean» tabako labore bakoitzerako argitaratua.

9.20. Salmenta unitatearen deskribapena.

Baldintzapeko datua

Kontabilizatutako produktua tabako laboreen gaineko zergaren kargapean badago, salmenta unitate bakoitzaren deskribapena adierazi behar da, fabrikazioaren gaineko zerga berezien kontabilitatearen prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako tauletako salmenta unitate moten arabera.

9.21. Salmenta unitatearen edukia.

Baldintzapeko datua.

Kontabilizatutako produktua tabako laboreen gaineko zergaren kargapean badago, salmenta unitate bakoitzean dagoen kantitatea adierazi behar da: zigarro, zigarrotxo edo zigarreta kopurua edo, biltzeko tabakoaren eta gainerako tabako laboreen kasuan, gramoak (bi dezimal).

10. Ontziak.

10.1. Ontzi mota.

Baldintzapeko datua.

Kontabilizatutako produktua alkoholaren eta edari alkoholdunen gaineko zerga berezien kargapeko produktua ontziratua bada, ontzi motaren kodea adierazi behar da. Kode horiek fabrikazioaren gaineko zerga berezien prozedurarako Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratutako tauletan ageri dira.

Garagardo fabrika gisa baimenduta dauden establezimenduek (hain zuzen ere, Zerga Berezien Erregelamenduaren 61.2 artikuluan aipatutakoek) ez dute datu multzo hau bete behar.

10.2. Ontziaren edukiera.

Baldintzapeko datua.

Kontabilizatutako produktua alkoholaren eta edari alkoholdunen gaineko zerga berezien kargapeko produktua ontziratua bada, ontziaren edukiera adierazi behar da, litroetan eta hiru dezimalekin.

10.3. Ontzi kopurua.

Baldintzapeko datua.

Kontabilizatutako produktua alkoholaren eta edari alkoholdunen gaineko zerga berezien kargapeko produktua ontziratua bada, kontabilitateko idazpeneko eragiketako guztirako ontzi kopurua adierazi behar da.

10.4. Marka fiskalen adierazlea.

Aukerako datua.

Kontabilizatutako produktua alkoholaren eta edari alkoholdunen gaineko zerga berezien kargapeko produktu amaitua bada, ontziak marka fiskalak atxikita dituen ala ez adierazi ahal izango da ondoko taulako kode egokia erabiliz.

3. taula. Marka fiskalen adierazlearen kodeen taula (marka fiskalik dagoen ala ez).

Azalpena.	Balioak
Ez du marka fiskalik atxikita	0
Marka fiskalak atxikita ditu	1

11. Oharrak.

Baldintzapeko/aukerako datua.

Baldintzapekoa. Mugimendua ondoko hauetako bat denean, kontabilitateko idazpena zerk eragin duen adierazi behar da, labur-labur:

- Neurketen doikuntza positiboa.
- Neurketen doikuntza negatiboa.
- Doikuntza positiboa aurreko ekitaldietako mugimenduengatik.
- Doikuntza negatiboa aurreko ekitaldietako mugimenduengatik.

Aurreko ekitaldietako mugimenduen ondoriozko doikuntza denean, doikuntza eragin duen mugimendua egin zen aurreko ekitaldiko data eta doikuntzaren arazoia adierazi behar dira.

Aukerakoa. Beste mota batzuetako mugimenduen kontabilitate idazpenetan, eremu hau aukerakoa da: kontabilizatutako idazpena azaltzeko edo argitzeko datuak edo informazioa.

III. Kontabilitateko idazpenak deuseztatzea.

Arabako Foru Aldundiari elektronikoki ematen zaizkion kontabilitateko idazpenak deuseztatu egin ahal izango dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez atal honetan ezarritako jarraibideen arabera betetako mezu elektroniko bat bidaliz.

Foru agindu honen 4 bis artikuluan ezarritakoaren arabera itxi ez diren ekitaldietako kontabilitate idazpenak bakarrik deuseztatu ahal izango dira. Hala ere, justifikatutako kasuetan, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko ikuskapeneko eta kontu hartzailetzako zerbitzuek baimena eman ahal izango dute itxita dagoen kontabilitate ekitaldi bat berriro irekitzeko eta hari dagozkion kontabilitate idazpenak deuseztatzeko, gehienez ere bost egun balioduneko epealdian.

1. Operadorea

Nahitaezko datu multzoa.

1.1. Establezimenduaren titularraren IFZ

Establezimenduaren titularraren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) adierazi behar da.

1.2. Establezimenduaren titularraren JEK

Establezimenduaren titularraren jarduera eta establezimendu kodea (JEK) adierazi behar da.

2. Deuseztatutako kontabilitate idazpena.

2.1. Idazpenak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan daukan zenbakia.

Nahitaezko datua.

Arabako Foru Ogasunak deuseztatutako kontabilitateko idazpenari egoitza elektronikoaren bidez eman zenean esleitutako zenbakia.

3. Deuseztatze idazpena.

3.1. Barruko erreferentzia zenbakia.

Baldintzapeko datua.

Establezimenduaren titularrak erabakitzen badu kontabilitateko idazpenak euskarri informatikoan duen bere kontabilitate sistematik hornitzea foru agindu honen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, establezimenduaren euskarri informatikodun kontabilitate sisteman deuseztatze idazpenari esleitutako erreferentzia zenbakia adierazi behar da.

2.2. Kontabilitate erregistroko data.

Baldintzapeko datua.

Establezimenduaren titularrak erabakitzen badu kontabilitateko idazpenak euskarri informatikodun kontabilitate sistematik hornitzea foru agindu honen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, establezimenduaren kontabilitate sisteman deuseztatze idazpena noiz erregistratu den adierazi behar da.

3.3. Deuseztatze arrazoiak.

Nahitaezko datua.

Deuseztatze arrazoiak adierazi behar da taula honetako balio egokiena ezarrita:

4. taula. Deuseztatze arrazoiak.

Azalpena.	Balioak
Zenbakizko errorea	1
Idazpen bikoiztua	2
Beste arrazoi bat	3

4. Oharrak.

Aukerako datua.

Eremu librean; kontabilizatutako idazpena azaltzeko edo argitzeko datuak edo informazioa.

IV. Kontabilitate izakinak

Arabako Foru Aldundiak bere egoitza elektronikoaren bidez emandako kontabilitate idazpenen ondoriozko kontabilitate izakinei buruzko informazioa emango du.

Aurreko informazioa emandako kontabilitateko idazpenetako produktu bakoitzari buruzkoa izango da. Produktuak foru agindu honen 3. artikuluan ezartzen den bezala identifikatuko dira.

Kontabilitate izakinei buruzko informazioa establezimenduen titularren eskura jarriko da, gutxienez:

- Berehala, emandako azken idazpena arte sortutako izakinei buruzko informazioa.
- Hilero, hilabete natural bakoitzean emandako idazpenen ondoriozko izakinei buruzko informazioa, kasuan kasuko hileko kontabilitate idazpenak emateko epealdia amaitu ondoren.
- Urtero, kontabilitate ekitaldi osoan emandako idazpenen ondoriozko izakinei buruzko informazioa, ekitaldia amaitu ondoren eta hura itxi egin dela jakinarazi ondoren.